



COVID-19ari AURRE EGITEKO KONTINGENTZIA-PLANA.

Data	Edizioa
2020/08/24	Lehenengo edizioa

Aurkibidea

• Sarrera eta lege-erreferentziak

1.1. Sarrera

463/2020 ED eta 10/2020 LED indarrean jartzearekin batera, jarduera asko eten edo aldatu egin ziren COVID-19ak mundu-mailan eragindako pandemiaren ondorioz. Pandemiaren zati bat igaro da, eta, orain, bada garaia hainbat erakundek jarduerari berrekiteko, baina pixkanaka. Horretarako, beharrezkoa izango da urrats batzuk egitea lanean segurtasuna eta osasuna bermatzeko inoiz bizi izan ez dugun egoera batean eta, gainera, erakundeen jarduera desberdinetan beste inor COVID-19az kutsatzea saihesten saiatu behar dugu.

Erakundearen ohiko lan-baldintzak ez beste prozedura eta jarraibide batzuen multzoari esaten zaio kontingentzia-plana. Prozedura eta jarraibide horiek erakundearen funtzionamendua ahalbidetzen dute, nahiz eta haren funtzio batzuk bertan behera gelditu erakundearekin zerikusirik ez duen gorabehera edo kanpo-baldintzaren ondorioz. Kasu honetan, kontingentzia-plan hau SARS-CoV-2 koronabirusaren pandemiak eragin du.

Oro har, enpresa guztietan bete behar diren segurtasun- eta osasun-baldintzak laneko arriskuen prebentzioari buruzko legean eta hura garatzen duen araudian jasota daude, baita pandemia-egoera honetan, agintari eskudunek eta osasun-agintariek Osasun Ministerioaren orri ofizialean argitaratu diren ondoz ondoko protokolo eta jardun-gidetan emandako arauetan ere. Bereziki garrantzitsuak dira [Lantokietako jardunbide egokien jarraibideak eta COVID-19az ez kutsatzeko Osasun Ministerioaren neurriak](#).

Protokoloak eta jarraibideak unean-unean dagoen informazioaren arabera garatzen dira, pixkanaka baikoaz ikasten birusari buruz; hori dela eta, etengabe berrikusi behar dira proposatutako planteamenduak eta neurriak. Horrenbestez, beharrezkoa da egunean egotea eta birusari eta haren portaerari buruz dakiguna jasotzen duten neurri berritzaileak sustatzea; beraz, dokumentu hau funtsean dinamikoa da.

Dokumentu hau prestatzeko, dinamismoaren premisa horretaz gain, ezer baino lehen erakundeek bere langileak aztertu behar ditu, COVID-19az kutsatzeko arrisku handiena dutenak zein diren eta, ahal izanez gero, haien lanpostuak egokitu behar diren ala ez jakiteko.

Nork lan egin dezakeen zehaztu ondoren, erakundeak bere lan-prozedurak eta -moduak egokitu behar ditu, langileei birus berriaren aurrean lan-ingurune segurua eskaini ahal izateko. Horretarako, hasieran instalazioak desinfektatzeaz gain, ekoizpen-prozesua aztertu behar da, lanpostuak eta haiei lotutako zereginak kontuan hartuta, baita segurtasun-tartea eta osasun-agintariek ezarritako gainerako jarraibideak une oro bete behar direla aintzat hartuta ere. Beraz, birusaz kutsatzeko arriskua handitu edo alda

dezaketen faktoreak identifikatuko ditugu, baina baita lan-baldintzak aldatzearen ondorioz ohiko arriskuak aldatu eta beste batzuk eragiten dituzten bestelako arrisku batzuk handitu edo alda ditzaketen faktoreak ere.

Kontuan hartu beharreko faktoreak identifikatu ondoren, Tomas Garbizu Udal Musika Eskolako langileen segurtasuna eta osasuna bermatuko dituzten neurriak planifikatu eta gauzatu ahal izango ditugu, eta lanpostuan arriskurik ez izatea eta COVID-19az ez kutsatzea nola saihestu integratu.

Plan hau dokumentu ireki bat da, eta aldizka berrikusi behar da, lan-egoeretan, erreferentziako arauetan edo hura ezartzearekin erlazionatutako alderdietan aldaketaren bat dagoen bakoitzean.

1.2. Legezko erreferentziak

Hona hemen Planaren irismenari eta edukiari dagokienez kontuan hartu beharreko argitalpen batzuk (baliteke aurrerago zerrenda eguneratu behar izatea):

- 463/2020 Errege Dekretua, martxoaren 14koa, COVID-19ak eragindako osasun-krisia kudeatzeko alarma-egoera deklaratzeko duena.
- 10/2020 Lege Errege Dekretua, martxoaren 29koa, oinarritzko zerbitzuak ematen ez dituzten besteren konturako langileentzako baimen ordaindu berreskuragarria arautzen duena, herritarren mugikortasuna murrizteko COVID-19aren aurkako borrokaren testuinguruan.
- 31/1995 Legea, lan-arriskuen prebentzioari buruzkoa.
- 39/1997 ED, Prebentzio Zerbitzuen Araudia onartzen duena.
- 664/1997 ED, maiatzaren 12koa, lanean langileen osasuna eta segurtasuna agente biologikoek berekin dakartzaten arriskuetatik babesteari buruzkoa.
- 773/1997 ED, maiatzaren 30ekoa, langileek norbera babesteko ekipamendua erabiltzeari buruzko laneko osasunaren eta segurtasunaren arloko gutxieneko xedapenei buruzkoa.
- 486/1997 ED, apirilaren 14koa, laneko osasunaren eta segurtasunaren arloko gutxieneko xedapenei buruzkoa.
- “SARS-CoV-2 birusarekiko esposizioaren aurrean laneko arriskuen prebentziorako zerbitzuetarako jarduteko prozedura” (2020ko apirilaren 8an eguneratua). OSASUN MINISTERIOA
- 2020ko apirilaren 23ko Ebazpena, Industriaren eta Enpresa Txiki eta Ertainen Idazkaritza Nagusiarena, COVID-19ak eragindako osasun-krisiaren testuinguruan norbera babesteko ekipamenduei buruzkoa.
- COVID-19ari aurre egiteko lantokietako jardunbide egokien gida. GOBERNUKO PRESIDENTETZA, 2020ko apirilaren 11.

- Normaltasun Berrirako Trantsiziorako Plana 2020/04/28
- EHAA: AGINDUA, 2020ko uztailaren 15koa, Osasuneko sailburuarena, zeinaren bidez aldatu egiten baita agindu honen eranskina: Agindua, 2020ko ekainaren 18koa, Osasuneko sailburuarena, COVID-19ak eragindako osasun-krisialdiari aurre egiteko beharrezko prebentzio-neurriei buruzkoa, Normaltasun Berrirako Trantsiziorako Planaren 3. fasea gainditu eta gero.
- EHAA: Agindua, 2020ko ekainaren 18koa, Osasuneko sailburuarena, COVID-19ak eragindako osasun-krisialdiari aurre egiteko beharrezko prebentzio-neurriei buruzkoa, Normaltasun Berrirako Trantsiziorako Planaren 3. fasea gainditu eta gero.
- EHAA: AGINDUA, 2020ko abuztuaren 19koa, Osasuneko sailburuarena, zeinaren bidez laugarren aldiz aldatzen baita agindu honen eranskina: Agindua, 2020ko ekainaren 18koa, Osasuneko sailburuarena, COVID-19ak eragindako osasun-krisialdiari aurre egiteko beharrezko prebentzio-neurriei buruzkoa, Normaltasun Berrirako Trantsiziorako Planaren 3. fasea gainditu eta gero (2020ko uztailaren 28ko eta abuztuaren 7ko aginduen bidez aldatua).

• Xedea

Dokumentu tekniko honen helburua da kontingentzia-plan bat ezartzea, COVID-19aren pandemiak sortutako egoeran egonda ere erakundeak lanean jarraituko duela bermatzeko.

Plan honetan, pandemia gorabehera jarduerarekin jarraitu ahal izateko ekintza nagusiak biltzen dira, baita hartu beharreko neurri kolektiboak, antolakuntzakoak eta pertsonalak ere. Neurri horien bidez, beste inor ez kutsatzea lortu nahi da, eta, horrez gain, inor kutsatuz gero, erantzun egokia ematea.

• Irismena

Kontingentzia-plan hau erakunde honentzat prestatu da:

Erakundearen izena:	LEZOKO UNIBERTSITATEKO UDALA
Lantokia	Tomas Garbizu Udal Musika Eskola
Helbidea	Arretxene Kalea, 3, 20100 Lezo, Gipuzkoa
Jardueraren deskribapena	Musika-eskola

Kontuan izan behar da txosten honetan ateratzen diren ondorioak bisitaldietako datuen oinarrituta egongo direla, baita enpresak emandako informazioan ere; horrenbestez, baliteke gaur egungo egoera aldatuz gero ondorioak ere aldatzea.

Bisitaldietan, enpresako langileen laguntza izan zuten gure teknikariek:

DATA	LAGUNTZAILEA	KARGUA	OHARRAK
2020/08/20	XANTI ESPINA	Eskolako arduraduna	

• Informazio orokorra

Ordutegiak eta ikasle-ratioak.

21/2020 Errege Lege Dekretuak, ekainaren 9koak, COVID-19ak eragindako osasun-krisialdiari aurre egiteko prebentzio, geldiarazte eta koordinazioko premiazko neurrienak, 9. artikuluko aplikazio-eremuan jasota ez dauzkan eta dagokion erregistroan izena emanda dauden prestakuntza ez-arautuko zentro publiko nahiz pribatuetan aurrez aurre eman ahal izango dira eskolak, eta gehienez 25 pertsona elkartu ahal izango dira.

Taldeko ordutegi teorikoak argitaratu bezala mantenduko dira, baina, ikasle-ratioa murriztu egin denez, denbora ere murriztu egingo da, proportzionalki (astean 1 h-ko saioak 6-7 ikasleko ratorako), 4-5 urteko ikasleen kasuan izan ezik, 6 ikaslekoa izan baita (+/- 35').

Instrumentuetarako ordutegiak. Bere horretan geratuko dira denbora-/ikasle-ratioak (3 ikasle, 1 ordu).

Talde instrumental koralen ordutegiak. Bere horretan geratuko dira denbora-ratioak. Ikasle-ratioari dagokionez, espezialitateko arduradunaren iritzira murriztuko da.

Orain arte bezala jarraituko du jendearentzako arreta-zerbitzuak (16:30etik 20:00etara). Bulegoan, une jakinetan, gehienez 2 pertsona egongo dira (administraria + "irakaslea" edo...)

Kasu guztietan, Eusko Jaurlaritzak unean-unean ezarritako euste-neurriak bete beharko dira.

Kokapena.

Instrumentu-eskolak. Saio bakoitzean "tamaina txikiko" 3 eskola emango dira (1 pertsonako), edo tamaina handiko 1 eskola (entsegu-gela, emaginaren gela, trikitixa, musika-hizkuntza) irakasleko, gehienez 3 ikaslekoa.

Taldeko eskolak. Taldearen arduradunaren iritzira (banda, abesbatza, akordeoiak), entzungela, entsegu-gela eta emaginaren gela erabiliko dira.

Mugikortasuna.

Sotoko geletara iristeko (entsegu-gela eta emaginaren gela), eraikinaren aurrealdetik sartu behar da.

Sartu ahal izateko, ikasleek segurtasun-tartea gorde behar dute zain dauden bitartean (1,5-2 m), ezkerreko arkupean (optika; markak egongo dira zoruan). Irteteko, ikasleek eskuineko arkuperantz joan behar dute (farmazia).

Lehen eta bigarren solairuetako geletara iristeko. Eraikinaren atzeko edo goiko aldetik sartu behar da. Sartu ahal izateko, ikasleek segurtasun-tartea gorde behar dute zain dauden bitartean (1,5-2 m), ezkerreko arkupean (1. eta 2. atariak). Irteteko, ikasleek eskuineko arkuperantz joan behar dute (4. eta 5. atariak). Kasu batean zein bestean, irakasleak esaten duenari jaramon egin behar zaio.

Irakasleak ateraino lagunduko dio ikasleari. Elkarrengandik 2 metrora egon beharko dute.

Banan-banan artatuko da jendea bulegoan; gainerakoek kalean itxaron beharko dute. Lehentasuna izango du telefono eta ordenagailu bidezko arretak.

Norberaren erantzukizuna (ikasleak).

Babes-neurriak gordetzea:

- 1,5 metroko segurtasun-distantzia gordetzea.
- Zentroan dauden denek erabili beharko dute maskara (6 urtetik beherakoek izan ezik), nahiz eta elkarrengandik 1,5 metroko segurtasun-distantzia gorde. Hala ere, 6 urtetik beherakoek ere maskara erabiltzea gomendatzen da.
- Haize-instrumentuetako ikasleek instrumentua jotzeko unean soilik kenduko dute maskara.
- Haize-instrumentuaren irakaslea instrumentua jotzen ari bada, ikasleak FFP2 maskara jantzi beharko du.
- Abesbatzetako kideek maskara erabiltzea gomendatzen da. Nahitaez jantzi beharko dute elkarrengandik 2 metrora egon ezin badira.
- Eskuak garbitzea.
- Maiz ukitzen diren gainazalak ez ukitzea.
- Sukarra edo eztula izanez gero, airea falta zaiola sentituz gero, etab., eskoletara ez joatea.
- Ikasmateriala (nahitaezkoa)
- 4, 5 eta 6 urteko ikasleak: perkusio txikiko sorta.
- Instrumentu-ikasleen kasuan, eskola bukatutakoan, instrumentua bera eta erabilitako kantadera eta aulkia garbitzea.
- Gurasoek ezin izango diete lagundu ikasleei eraikin barrura.

Norberaren erantzukizuna (irakasleak).

Babes-neurriak gordetzea:

- Segurtasun-tartea gordetzea.
- Nahitaez jantzi beharko dute maskara, nahiz eta elkarrengandik 1,5 metrora egon. Ezin dira erabili balbula duten maskarak.
- Haize-instrumentuetako irakasleek FFP2 maskara erabili beharko dute eskoletan.
- Ikasleren batek maskara ez badu (6 urtetik beherakoak), irakasleak FFP2 maskara erabili beharko du.
- Eskuak garbitzea.
- Maiz ukitzen diren gainazalak ez ukitzea.
- Sukarra edo eztula izanez gero, etab., lanera ez joatea.
- Ikasmateriala (nahitaezkoa)
- Saio bakoitzaren ondoren ikasleak kantadera eta aulkia garbitu dituela ziurtatzea.
- Beste langile batzuen ekipamendua eta gailuak ez erabiltzea. Hainbat langilek ekipamendu bera erabiliz gero, desinfektatu egin beharko da erabili ondoren.
- Lan-eremua osatzen ez duten eraikineko beste toki batzuetatik ez ibiltzea.

Norberaren erantzukizuna (administrariak).

Babes-neurriak gordetzea:


- Administrazioak ezarritakoak. (Udala-bulegoak)

Zentroaren erantzukizuna

Babes-neurriak gordetzea:

- Senideei eta ikasleei zentroan ezarri diren segurtasun-arauen berri ematea.
- Ezin izango da ezer jan eraikinaren barruan.
- Zentroan sartzeko eta zentrotik irteteko, gezi-itxurako marka batzuk jarriko

dira, nondik sartu eta irten behar den azaltzeko.



Adibidea:

- Gel hidroalkoholikoko banagailuak. Sarrera bakoitzean bat jarriko da. Banagailuaren ondoan, nahitaez erabili behar dela adieraziko da.
- Prestakuntza-gela bakoitzean lainoztagailu bat egongo da, instrumentuak, objektuak, etab. garbitzeko.
- Maskara erabili beharra ez dagoen prestakuntza-geletan (6 urtetik beherakoak, haize-instrumentuak, etab.), gel hidroalkoholikoa jarriko da,



formatuan.

- Gela guztietan paper-biribilkiak jarriko dira, desinfektatzeko, baita hondakinatarako edukiontzi bat ere, ahal dela oinarekin eragiten zaion estalkiduna.
- Komunetan, xaboia egongo da eskuak garbitzeko, eskuak garbitzeko paper-banagailu bat, eta edukiontzi bat, oinarekin eragiten zaion estalkiduna.
- Geletako zoruak, markak jarriko dira, aulkiak non kokatu behar diren azaltzeko. Elkarrengandik gutxienez 1,5 metrora egon behar dira aulkiak. Aulkiak bereizi ezin badira, marka bat jarriko zaie erabili ezin diren aulkiei.



Adibidea:

- Esertzeko bankuak erabiliz gero, marka bat jarriko da erabili ezin den eremuan.



Adibidea:

- Haize-instrumentuetako prestakuntza-geletan manpara bat jartzea gomendatzen da, haize-instrumentuak jotzen direnerako.
- Jarduera ekonomikoaren titularrak edo, hala badagokio, zentroaren zuzendariak edo arduradunak zentroaren ezaugarriak eta erabilera-maila kontuan hartuta garbiketa- eta desinfekzio-neurriak hartzen direla ziurtatu beharko dute.
- Saio bakoitzaren ondoren, gutxienez ikasleak erabilitako kantadera eta aulkia garbitu beharko dira. Haize-instrumentuen geletako zoruak ere garbitzea gomendatzen da, instrumentu horiek ura isurtzen dutelako.
- Maskarak eman beharko zaizkie irakasleei. Kontuan izan beharko da fabrikatzaileak maskarari buruz ematen duen informazioa, zenbatean behin aldatu behar den jakiteko, baita hura erabiltzeko eta mantentzeko arauak ere.

- Ahal dela komunak ez erabiltzeko eskatuko zaie zentzura datozenei. Haien erabiliz gero, maskara behar bezala jarrita eduki behar da, eta, komunera sartu baino lehen eta handik atera ondoren, gel hidroalkoholikoarekin garbitu behar dira eskuak.
- Pertsona ukitzen ez duten termometroak eduki behar lirateke zentroan.
- Bete beharreko arauen kartelak jarriko dira solairu guztietan.

Lanpostuen eta lan-prozesuen deskribapena.

Instalazio horietan zeregin hauek egiten dira:

Postua	Zereginak	Kokapena	Azalpena	Oharrak
Administrariak	Administrazioa	Bulegoa	Zeregin administratiboak	
Irakasleak	Prestakuntza	Prestakuntza-gelak	Aurrez aurreko prestakuntza	

Lantokira joateko modua.

Lantokira joateko, enpresako langileek nagusiki garraibide hauek erabiltzen dituzte:

- Ibilgailu pribatua.
- Oinez joaten dira.

Zereginak enpresan bertan egiten dituzten langileak beren ibilgailuan joaten dira bertara. Hala ere, pertsona batzuek beste garraibide batzuk erabiltzen dituzte; hortaz, beharrezkoa da beste garraibide horiek erabiltzean hartu beharreko prebentzio-neurrien berri modu pertsonalizatuan ematea.

- Ahal dela, garraio pribatuan edo oinez joango dira langileak lantokira, jende-pilaketak saihesteko.
- Gehienez 9 pertsona (gidaria barne) eraman ditzaketen ibilgailu pribatu partikularretan eta pribatu osagarrietan, bi pertsona joan ahal izango dira eserleku-ilara bakoitzeko, baldin eta maskara jantzita badaramate eta ibilgailuan doazenekiko ahalik eta distantzia handiena uzten badute. Ibilgailu partekatuetan, maskara kirurgikoa erabiltzea gomendatzen da (baina ez da nahitaezkoa). Erabiltzen den bakoitzean desinfektatu behar da ibilgailua, batez ere gehien ukitzen diren eremuak; esaterako, bolantea, abiadura-palanka eta gidatzean ukitzen diren gainerako elementuak, baita ateetako heldulekuak ere. Elementu horiek guztiak desinfektatzeko, birusak hiltzeko ahalmena duen edozein produktu erabil daiteke. Ziurtatu ibilgailuan halako garbiketa-elementuak dituzula.
- Gehienez bederatzi pertsona (gidaria barne) eraman ditzaketen ibilgailu publikoetan, gidariaren ilaraz gain dagoen ilara gehigarri bakoitzeko bi pertsona joan ahal izango dira, eta elkarrengandik ahalik eta urrunen jar daitezkeela bermatu behar da.
- Beren ezaugarri teknikoak kontuan hartuta eserleku-ilara bakarra duten ibilgailuetan, eta ibilgailu astunetan, furgonetetan eta bestelakoetan, gehienez bi pertsona joan ahal dira, baldin eta arnasbideak estaltzen dituzten maskarak jantzita badaramatzate eta elkarrengandik ahalik eta urrunen jar badaitezke. Bestela, gidaria

soilik joan ahal izango da.

- Autobus publiko erregularrean, pribatuan eta pribatu osagarrian, eta trenean, bidaiari guztiek eserita joan behar dutenez, enpresek behar diren neurri guztiak hartuko dituzte bidaiariak elkarrengandik ahalik eta urrunen egon daitezen; horiek horrela, ezingo dira erabili gehieneko bidaiari kopuruari dagokionez erabilgarri dauden eserlekuen erdiak baino gehiago. Edonola ere, autobusetan beti hutsik utziko da gidariaren atzeko ilara.
- Hiriko nahiz hiri-periferiako garraiobide publiko kolektiboetan, bidaiari batzuk zutik ere joan daitezkeenez, bidaiariak elkarrengandik ahalik eta urrunen egoteko ahalegina egingo da. Erreferentzia gisa, eserita joateko plazen erdiak erabili ahal izango dira, eta 2 bidaiari egongo dira zutik joateko jarritako eremuaren m²-ko.
- Oinez joanez gero: ahal dela, gorde gutxienez 2 metroko distantzia soziala beste pertsonetikiko, eta saihestu jende-pilaketak. Ez ukitu gainazalik, ezta aurpegia ere.

Lantokian jendea egotea.

Oro har, pertsona hauek egoten dira lantokian:

- Langileak.
- Ikasleak.

• Arriskuen ebaluazioa

Agente biologikoarekiko esposizioak zer arrisku dakarren ebaluatzeko, alderdi hauek hartzen dira kontuan:

Agente biologikoaren izaera.

Koronabirusak *Orthocoronavirinae* azpifamiliako kide dira (Coronaviridae familia, Nidovirales ordena). Azpifamilia horretan, lau genero daude: alfakoronabirusak, betakoronabirusak, gammakoronabirusak eta deltakoronabirusak, haien egitura genetikoaren arabera. Alfakoronabirusak eta betakoronabirusak ugaztunak soilik kutsatzen dituzte, eta, normalean, arnas infekzioak eragiten dituzte gizakiengan, eta gastroenteritisa animalian. Sei koronabirus hauteman dira gizakiengan 2019-nCov (SARS-CoV-2) baino lehen, zeinak COVID-19 gaixotasuna eragiten baitu.

Beste koronabirus batzuen antzera zabaltzen da gizakien artean; hau da, kutsatutako pertsonen jariakinen bidez. Kutsatzeko, nagusiki zuzenean ukitu behar dira 5 mikra baino gehiagoko arnas tantak (2 m-ra baino gutxiagora egonez gero) edo jariakin horiek kutsatutako eskuak edo fomiteak, eta, gero, ahoko, sudurreko edo begietako mukosa ukitu (osasun-alerta eta -larrialdien zentroak emandako informazioaren arabera).

Agente biologiko gisa, SARS-CoV-2 koronabirusa ofizialki ez dago 4 talde horietako batean sailkatuta, baina, talde horien definizioak kontuan hartuta (664/1997 ED), eta sailkapen ofizialik ezean, hasiera batean **2. taldeko agente biologiko gisa sailkatuko genuke, gainerako coronaviridae bezala**. Sailkapen hori "102/2020 irizpide operatiboa" izeneko dokumentuan proposatutakoa da ("102/2020 irizpide operatiboa, koronabirus berriaren eraginez [SARS-CoV-2] sortutako egoerak direla-eta Laneko eta Gizarte Segurantzako Ikuskatzailetzak ezarri dituen neurri eta jardunbideei buruzkoa").

Taldea	Azalpena
1	Gizakiari gaixotasunik nekez sortuko diona.
2	Gizakiari gaixotasunen bat sor diezaiokeena, arriskutsua izan daitekeena langileentzat, kolektibitatera nekez zabalduko dena eta normalean profilaxi edo tratamendu eraginkorra duena.
3	Gizakiari gaixotasun larriren bat sor diezaiokeena, oso arriskutsua izan daitekeena langileentzat, kolektibitatera zabal daitekeena eta normalean profilaxi edo tratamendu eraginkorra duena.
4	Gizakiari gaixotasun larriren bat sor diezaiokeena, oso arriskutsua izan daitekeena langileentzat, kolektibitatera oso erraz zabal daitekeena eta normalean profilaxi edo tratamendu eraginkorrik ez duena.

Txertoa jasotzeko aukera.

Gaur egun ez dago agente biologiko horren aurkako txertoa jasotzeko aukerarik.

Esposizio mota.

Agente biologikoarekiko esposizioa, halakorik badago, **ez da nahitakoa**; jarduerak ez dakar berekin agente biologikoak nahita maneiatzea edo haiek lanean erabiltzea (664/97 ED).

Esposizio-arriskuaren ebaluazioa.

Jardueren izaera eta SARS-CoV-2 koronabirusa zabaltzeko moduak kontuan hartuta, langileek izango lituzketen arrisku-egoerak zehatz ditzakegu; beheko taulan bildu ditugu.

Lan-ingurunean SARS-CoV-2 koronabirusarekiko dagoen esposizio-arriskuko egoerak

ARRISKUKO ESPOSIZIOA	ARRISKU TXIKIKO ESPOSIZIOA	ESPOSIZIO-PROBABILITATE TXIKIA
----------------------	----------------------------	--------------------------------

<p>Sintomaren bat duen norbaiti arreta ematen dioten osasun-langile asistentzialak eta ez-asistentzialak.</p> <p>Osasun-garraioko teknikariak, garraiatuko duten pertsona sintomatikoarekin kontaktu zuzena izanez gero.</p> <p>Arrisku-gune batetik datorren pertsona sintomatiko bat bidaian artatzen duen garraioetako tripulazioa (airekoa, itsasokoa edo lurrekoa).</p> <p>Lan-ingurunean sintomaren bat duen norbaitekin kontaktu estua izatea saihesteko aukerarik ematen ez duten egoerak.</p>	<p>Lan-ingurunean sintomaren bat duen inorekin kontaktu esturik ez duten osasun-langileak:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Joan-etorrietarako laguntzaileak. • Jagoleak, andazainak, garbitzaileak. <p>Birusaren diagnostikoa egiteko probez arduratzen diren laborategiko langileak.</p> <p>Agian kutsatuta dauden material sanitarioa, fomiteak edo hondakinak ukitzen dituzten baina osasun-arlokoak ez diren langileak (garbiketa, desinfekzioa, hondakin-bilketa, jendaurreko arreta, ostalaritza, hileta-enpresetako langileak).</p> <p>Asintomatikoekin kontaktua duten etxez etxeko zerbitzuko langileak.</p>	<p>Zuzenean jendea artatzen ez duten langileak, edo jendearengandik 2 metrora baino gehiagora daudenak, edo kontaktua saihesten duten babes kolektiboko neurriak dituztenak.</p> <ul style="list-style-type: none"> • Administrariak. • Barrera kolektiboa duen ambulanziazko gidaria, gaixoarekin zuzeneko kontakturik ez duena. • Garraioetako publikoetako gidariak. • Segurtasun-langileak. • Polizia/Guardia zibilak. • Aduanazainak. • Suhiltzaileak eta salbamenduko langileak. • Espetxeetako langileak.
ESKAKIZUNAK		
<p>Kasuan kasuko esposizio-arriskuaren ebaluazio espezifikoa kontuan hartuta: babes biologikoko NBE eta, zenbaitetan, esprai eta zipriztinetatik babestekoa.</p>	<p>Kasuan kasuko arriskuaren ebaluazio espezifikoa kontuan hartuta: babes biologikoko NBE.</p>	<p>Ez da beharrezkoa NBE erabiltzea.</p> <p>Zenbait egoeratan (sintomak dituen norbaitek laguntzen ez badu):</p> <ul style="list-style-type: none"> • arnasbideak babesteko materiala • babes-eskularruak.

Iturria: "Koronabirus (SARS-CoV-2) berriarekiko esposizioaren aurrean laneko arriskuen prebentzioarako zerbitzu-erakundearen jarduteko prozedura". Osasun Ministerioa, hainbat bertsio. Azken bertsioa hartu da kontuan (2020-04-08)

OHARRA: Taulako lehenengo errenkadan, arrisku-egoera bakoitzean kokatzeko definizioak betetzen dituzten langileen adibideak daude, eta bigarrenetan, berriz, babes-ekipamenduari dagozkion eskakizunak. **Jardueren adibideak dira, ez jardueren zerrenda zehatz bat.**

Definizioak:

- **Arriskuko esposizioa:** SARS-CoV-2 birusak eragindako infekzio-kasu probable edo baieztatu batekin kontaktu estuan egon daitekeen lan-egoerak.
- **Arrisku txikiko esposizioa:** kasu probable edo baieztatu batekin kontaktu esturik ez dagoen lan-egoerak.
- **Esposizio-probabilitate txikia:** jendaurreko arreta ez duten langileak, edo 2 metrotik gorako distantzian daudenak, edo kontaktua saihesten duten babes kolektiboko neurriak dituztenak (adibidez, kristalezko manpara, ambulanziazko kabinarekiko bereizketa, etab.).

Hau esan nahi da kasu posible, probable edo baieztatuekiko «**kontaktu estua**» esaten denean:

- Kasu batean zainketa-lanak egin dituen pertsona oro: babes-neurri egokiak erabili ez dituzten osasun-langileak edo langile soziosanitarioak, senideak, edo beste moduren bateko antzeko kontaktu fisikoa izan duten pertsonak.
- Kasu baten toki berean egon den pertsona oro, gutxienez 2 metrora baino gutxiagora (adibidez, bizikideak, bisitak) eta 15 minutuz baino gehiagoz.

Irizpide horien arabera, arrisku-egoera hauetan sailkatzen dira aztertutako lanpostuak eta

zereginak:

LANPOSTUA	EBALUATUTAKO ZEREGINA	ARRISKU-EGOERA
Administrariak	Zeregin administratiboak.	Arriskuaren ebaluazioa: Esposizio-probabilitate txikia
Irakasleak	Aurrez aurreko prestakuntza	Arriskuaren ebaluazioa: Esposizio-probabilitate txikia

OHARRAK:

- Zentroaren sarbide guztietan, maskara nahitaez erabili behar dela dioen kartel bat jarriko da.
- Ezin dira erabili balbula duten maskarak.
- Zentroaren sarbide guztietan, gel hidroalkoholikoa jarriko da, eta, ondoan, erabili egin behar dela dioen kartel bat.
- Eraikinaren kanpoaldean, sarbideetatik gertu, kartel bat jarriko da, ikasleei jakinarazteko kanpoan itxaron behar dutela irakasleak esan arte sar daitezkeela.

• Jarduteko protokolo medikoak

SARS-CoV-2 birusaz kutsatzeko arrisku handiagoa duten langileak babesteko prozedura

Beren ezaugarri pertsonalak edo egoera biologiko ezaguna kontuan hartuta, zenbait pertsonarentzat gainerakoentzat baino ondorio larriagoak izan ditzake SARS-CoV-2 koronabirus berriak eragiten duen gaixotasunak, edo arazo zehatz batzuk ekarri aurrera egin ahala. Pertsona horiek zaurgarriak direla esaten da.

Koronabirus berriak eragindako infekzio-kasuetan zer egin jakiteko Osasun Ministerioak ezarri dituen prozeduretan, gaixotasun hauek dituzten pertsonak osatzen dituzte SARS-CoV-2 koronabirusarekiko bereziki zaurgarriak diren taldeak:

- Diabetesa;
- Gaixotasun kardiobaskularra, hipertentsioa barne;
- Biriketako gaixotasun kronikoa;
- Immunoeskasia;
- Tratamendu aktiboan dagoen minbizia;
- Haurdunaldia; eta
- 60 urtetik gorakoak.

Langilearen osasun-datuak datuen babeserako legeak babesten dituzenez, enpresak ezin du jakin haren osasun-egoera, langilearen berriazko baimena izan ezean. Hori dela eta, prebentzio-zerbitzuak identifikatu eta baloratu behar ditu bereziki zaurgarriak diren enpresako langileak. Horrenbestez, prebentzio-zerbitzuarekin harremanetan jarri behar da langileak

banaka identifikatu eta balora ditzan.

Gaixotasunaren sintomak agertuz gero jarduteko prozedura

Sintomak etxean agertzen badira:

Gaixotasunarenak diruditen sintomak dituzten langileak ez dira joango lantokira, eta enpresari jakinaraziko diote; osasun-zerbitzuekin harremanetan jarriko dira, zer neurri hartu behar dituzten esan diezaieten, eta ematen dizkieten gomendioak beteko dituzte. Bilakaeraren berri emango diote enpresari.

Enpresan, ondo aireztatu behar da gaixoa egon den eremua (bulegoa edo aretoa), eta ondo garbitu ukitu dituen lan-eremuak (mahaia, aulkia, teklatura eta tresnak), sodio hipokloritoa (lixiba) 1/50 proportzioan disolbatuta lortutako soluzio batekin (hau da, lixiba zati bat eta 49 ur zati); gero, bota egin behar da garbitzeko erabilitako zapia. Garbitzaileek eskularruak eta FFP2 maskara erabiliko dituzte zeregin horretarako.

Langile horrekin kontaktu estua izan duen langilerik baden baloratu beharko da, puntu honi dagokion atalean ezarritakoaren arabera.

Gaixoarekin kontaktuan egon diren gainerako langileei dagokienez, **ziurrenik ez dute kontaktu esturik izan harekin** (alegia, ez dira egon gaixoa egon den toki berean, ezta 2 metrora baino gutxiagora ere gutxienez 15 minutuz eta babes-ekipamendurik erabili gabe). Hortaz, Osasun Ministerioaren protokoloari jarraikiz arriskukoak ez direnez, sukarrak baduten begiratu behar dute egunean bitan (gutxi gorabehera 12 orduz behin, etxetik irten aurretik eta gauean), eta, sukarra izanez gero, ezingo dira etxetik irten, eta medikuarekin harremanetan jarri beharko dute, edo lehen adierazitako telefono-zenbakietara deitu. Beti da garrantzitsua eskuak maiz garbitzea eta aurpegia ez ukitzea, baina are gehiago sintomak baldin badaude, birusa gainazaletatik hartzen baitugu eskuekin eta, aurpegia ukitzen badugu, begietatik, sudurretik edo ahotik sartzen baitzaigu. Sintomarik ez badute, baina zalantza baldin badute, familiako medikuarekin jarri behar dute harremanetan.

Sintomak lantokian agertzen badira:

Eskolan dagoela langile edo ikasle bat bat-batean jartzen bada gaixo eta arnasbide altuetako infekzio-sintomak baldin baditu (sukarra, eztula, doministikuak, neke-sentsazioa), lehenbailehen urrundu behar da gainerakoengandik (nahikoa da bulego edo areto atedun batean sartzea; ahal dela, leiho bat ere izango du, gero aireztatu ahal izateko), maskara kirurgikoa jantzi behar du birusa zabal ez dezan (birusa baldin badu), lehenbailehen joan behar du etxera, ahal badu garraio pribatuan, eta, etxera iritsitakoan, osasun-zerbitzuekin harremanetan jarri behar du.

Enpresan, ondo aireztatu behar da gaixoa bakartuta egon den eremua (bulegoa edo aretoa), eta ondo garbitu ukitu dituen lan-eremuak (mahaia, aulkia, teklatura, tresnak eta lan-mahaiak), sodio hipokloritoa (lixiba) 1/50 proportzioan disolbatuta lortutako soluzio batekin (hau da, lixiba zati bat eta 49 ur zati); gero, bota egin behar da garbitzeko erabilitako zapia. Garbitzaileek eskularruak eta FFP2 maskara erabiliko dituzte zeregin horretarako.

Langile horrekin kontaktu estua izan duen langilerik baden baloratu beharko da, puntu honi dagokion atalean ezarritakoaren arabera.

Gaixoarekin kontaktuan egon diren gainerako langileei dagokienez, ziurrenik ez dute kontaktu esturik izan harekin (alegia, ez dira egon gaixoa egon den toki berean, ezta 2 metrora baino gutxiagora ere gutxienez 15 minutuz eta babes-ekipamendurik erabili gabe). Hortaz, Osasun Ministerioaren protokoloari jarraikiz arriskukoak ez direnez, sukarrak baduten begiratu behar dute egunean bitan (gutxi gorabehera 12 orduz behin, etxetik irten aurretik eta gauean), eta, sukarra izanez gero (37 °C baino gehiago), ezingo dira etxetik irten, eta medikuarekin harremanetan jarri beharko dute, edo lehen adierazitako telefono-zenbakietara deitu. Beti da garrantzitsua eskuak maiz garbitzea eta aurpegia ez ukitzea, baina are gehiago sintomak baldin badaude, birusa gainazaletatik hartzen baitugu eskuekin eta, aurpegia ukitzen badugu, begietatik, sudurretik edo ahotik sartzen baitzaigu. Sintomarik ez badute, baina zalantza

baldin badute, familiako medikuarekin jarri behar dute harremanetan.

Sintomak dituztenekin jarduteko protokoloa

Gogorarazi bertako guztiei (langileak eta ikasleak), COVID-19arekin erlazioatutako sintomaren bat izanez gero (eztula, sukarra, arnasa hartzeko zailtasuna, etab.), ez dutela zentzura joan behar eta COVID-19aren kasuak artatzeko autonomia-erkidegoko telefono-zenbakira edo lehen mailako arretako zentzura deitu behar dutela, eta haiek esandakoa bete. Ez dute lantokira joan behar ez berarentzat ez gainerakoentzat arriskurik ez dagoela ziurtatzen ez dioten arte.

Langileekin bezala jokatu da enpresako langileekin kontaktua izan dezaketen bezero, erabiltzaile eta abarrekin. Bilerak adostu aurretik, bezeroei instalazioetan sartu aurretik, etab., COVID-19ak eragiten dituen moduko sintomarik baduen galdetu beharko zaio. Baiezkia erantzuten badu, atzeratu egingo da bilera, gutxienez 14 egun, eta gogoraraziko zaio COVID-19aren kasuak artatzeko telefono-zenbakira edo lehen mailako arretako zentzura deitu behar dutela, eta haiek esandakoa bete.

Ikusi eranskinak: sintomatologia eta arreta-telefonoak, "Zer egin sintomak izanez gero?", eta "Zer egin norbaitekin kontaktu estua izanez gero?".

COVID-19arekin kontaktu estua izanez gero jarduteko protokoloa

Hau esan nahi da kasu posible, probable edo baieztatuetikiko «**kontaktu estua**» esaten denean:

- Kasu batean zainketa-lanak egin dituen pertsona oro: babes-neurri egokiak erabili ez dituzten osasun-langileak edo langile soziosanitarioak, senideak, edo beste moduren bateko antzeko kontaktu fisikoa izan duten pertsonak.
- Kasu baten toki berean egon den pertsona oro, gutxienez 2 metrora baino gutxiagora (adibidez, bizikideak, bisitak) eta 15 minutuz baino gehiagoz.
- Hegazkin batean kasu baten inguruko 2 eserlekuko erradioan kokatuta dauden bidaiariak eta kasuarekin kontaktua izan duten tripulazioko langileak dira kontaktu estua.

Kasuak sintomak nabaritu baino 2 egun lehenagotik kasua isolatzen den arteko aldia hartzen da kontuan. PCR bidez berretsitako kasu asintomatikoetan, diagnostikoa egin baino 2 egun lehenago izandako kontaktuak bilatuko dira.

Kasu baieztatuen kontaktu estuek etxean sartuta egon beharko dute 14 egunez, kasuarekin azken kontaktua izan denetik hasita, eta prebentzio-zerbitzuak kasuaren segimendua egingo du.

Enpresan positibo bat detektatuz gero, berehala jakinaraziko zaio prebentzio-zerbitzuko osasun-arloari, **kontaktu estu horiek identifikatu eta haien segimendua** egin ahal izateko. Prebentzio-zerbitzuko arlo medikoak adieraziko du nola jokatu behar den kontaktu estu horietako bakoitzarekin.

COVID-19agatik bajaran egon diren langileen itzulera

Langile edo ikasleren bat aldiz batez bajaran egon bada COVID-19agatik, bi egoera bereiz daitezke:


- Birusik ez duela ziurtatzen duen proba eginda edukitzea; halakoetan, normaltasunez itzuliko da lanera; hau da, ohi bezala joango da lanera.
- Halako probarik eginda ez edukitzea, COVID-19a izan zezakeelakoan zuzenean bajaran eman bazaio; hau da, gaixotasuna zuelako susmoa zegoelako. Halakoetan, lanera itzuli aurretik, beharrezkoa izango da proba diagnostikoak egitea, medikoki baloratu

ahal izateko birusik baden ala ez. Izan ere, kutsa dezakeen pertsona bat lanera itzultzen bada, birusa zabaltzeko oso arrisku handia dago. Hortaz, pertsona horri proba bat egitea gomendatzen da, benetan gaixotasuna izan duen ala ez ikusteko, eta, hala bada, gainditu duen ala ez jakiteko. Kasu horretan, serologia kuantitatiboak izango lirateke proba gomendagarrienak.

Proba hori egin ondoren, eta, emaitzaren arabera, langilea edo ikaslea normaltasunez itzuli ahal izango da zentrorra, edo osasun-zerbitzu publikoarekin harremanetan jarri beharko du, dagokion baja izapidetu ahal izateko.

● Ezarri beharreko neurrien plana.

Taula honetan, proposatutako neurriak ezarriko direla ziurtatzeko behar diren baliabide materialak eta giza baliabideak zehazten dira.

Kokapena	Prebentzio-neurriak
Langile eta ikasle guztiak	Zentrora joan aurretik langileek eta ikasleek sukarrrik ez dutela ziurtatzea. Langile eta ikasleek eurek etxean egiaztatu ahal izango dute hori. Pertsona ukitzen ez duten termometroak eduki behar lirateke zentroan.
Langile guztiak	Birusari buruzko informazioa emango zaie langile guztiei, eta nola zabaltzen den eta norberak zer prebentzio-neurri hartu behar dituen jakinaraziko; batez ere higiene-neurriak azpimarratuko dira. Eranskinean dago langileak informatzeko materiala.
Langile guztiak	Maskara kirurgikoak edo higienikoak emango zaizkie langile guztiei.
Haize-instrumentuetako irakasleak	FFP2 maskarak emango zaizkie haize-instrumentuetako irakasleei.
6 urtetik beherako ikasleak dituen irakaslea	FFP2 maskarak emango zaizkie 6 urtetik beherako ikasleak dituzten irakasleei.
Instalazio guztiak	Sakonago garbituko dira instalazioak, batez ere birusa zabal dezaketen gainazalak, gainazal horiek zenbat pertsonak uki ditzaketen ere kontuan hartuta.
Ikasleak eta ikasleen senideak	Senideei eta ikasleei zentroan ezarri diren segurtasun-arauen berri ematea.
Zentroan sartzea eta zentrotik irtetea	Zentrora sartzeko zoruan gezi berdeak (sartzeko) eta gorriak (irteteko) markatuko dira.
Zentroko sarbideetatik hurbil dagoen eremua.	Informazio-kartelak jarriko dira ikasleei jakinarazteko zentroaren kanpoaldean itxaron behar dutela irakasleak esan nahitaez erabili behar dela adieraziko da.
Zentroaren sarbideak	Zentroaren barrualdean, sarbide guztietan, gel hidroalkoholikoko banagailuak jarriko dira. Banagailuaren ondoan nahitaez erabili behar dela adieraziko da.
Zentroaren sarbideak	Zentroaren sarbide guztien ondoan kartel bat jarriko da zentroan sartu nahi duten guztiek maskara nahitaez erabili behar dutela adierazteko.
Maskara erabili beharra ezarrita ez daukaten gelak	Prestakuntza-gela bakoitzean lainoztagailu bat egongo da, instrumentuak, objektuak, etab. garbitzeko, baita gelak ere,  formatuan. hidroalkoholikoa ere,
Prestakuntza-gela guztiak	Gela guztietan paper-biribilkiak jarriko dira, desinfektatzeko, baita hondakinatarako edukiontzi bat ere, ahal den orainarekin eragiten zaion estalkiduna.
Komunak	Komunetan, xaboa egongo da eskuak garbitzeko, eskuak garbitzeko paper-banagailu bat, eta edukiontzi bat orainarekin eragiten zaion estalkiduna.
Prestakuntza-gelak	Geletako zoruan, markak jarriko dira, aulkiak non kokatu behar diren azaltzeko. Elkarrengandik gutxienez 1 metroa egon behar dira aulkiak. Aulkiak bereizi ezin badira, marka bat jarriko zaie erabili ezin diren aulkiei. Esertzeko bankuak erabiliz gero, marka bat jarriko da erabili ezin den eremuan.
Haize-instrumentuetako prestakuntza-gelak	Haize-instrumentuetako prestakuntza-geletan manpara bat jartzea gomendatzen da, haize-instrumentuak jotzeko direnerako.

* Lehenetsunak esleitzeko ezarritako irizpidea:

5: Ondorioak benetan larriak izan daitezke / 4: Oso kalte larriak sor daitezke / 3: Kalte larriak sor daitezke / 2: Luzaroan badiraute, sortutako dezakete / 1: Min arina; ez dirudi langilearen ongizatean eragin nabarmena izango duenik.



● Informazioa eta komunikazioa.

Arriskuen ebaluazioa egin ondoren, enpresak SARS-CoV-2 koronabirusak eragindako pandemiaren aurka borrokatzeko hartu beharreko prebentzio-neurrien berri emango die langile guztiei, baita plan honetan oinarritutako gauzatu beharreko ekintzen berri ere. Horrez gain, aldizka, informazio-fitxetan edo plan honetan egiten den aldaketa ororen berri eman beharko du.

-
-
-
-
- ERANSKINA: Informazio orokorra.

¿Cuáles son los síntomas del nuevo coronavirus?



Los síntomas más comunes de la nueva enfermedad por coronavirus (COVID-19) son:


Fiebre

Tos

Sensación de falta de aire

El **80%** de los casos presenta **síntomas leves**

¿Has estado en contacto con alguien con síntomas de COVID-19?



Si has sido un contacto “estrecho”, es decir:

- Has sido cuidador/a de esa persona
- Has tenido un contacto a menos de 2 metros de forma continuada

**#Cuarentena
EnCasa**

**No debes salir
en 14 días salvo:**

- Necesidad de asistencia sanitaria
- Indicación por trabajar en servicio esencial

**Y si
tienes
síntomas**

**#Aíslate
Quédate
en tu
habitación**

**Consulta cómo actuar en la web del Ministerio de Sanidad
www.mscbs.gob.es**

26 marzo 2020

Consulta fuentes oficiales para informarte:

www.mscbs.gob.es

@sanidadgob

**#ESTE
VIRUS
LO
PARAMOS
UNIDOS**



¿Debo utilizar mascarilla para protegerme del coronavirus?



En la situación actual, ¿cuándo es importante usar la mascarilla?

- ✓ Si tienes síntomas (tos, fiebre, falta de aire) o infección por coronavirus


Si cuidas de una persona con infección o sospecha de infección por coronavirus, a una distancia menor a 1 metro, el paciente deberá llevar una mascarilla quirúrgica.



Medidas eficaces y que SÍ debe seguir toda la población



Mantener 1-2 metros de distancia entre personas



Lavado de manos




Evitar tocarse ojos, nariz y boca



Cubrir boca y nariz con el codo flexionado al toser o estornudar



Usar pañuelos desechables




¡CUIDADO! Un uso incorrecto de las mascarillas puede generar más riesgo, por eso, si en tu caso está indicado usar mascarilla:

- ✓ Lávate las manos antes de ponerla
- ✓ Cubre la boca y la nariz con la mascarilla
- ✓ Evita tocar la mascarilla mientras la llevas puesta
- ✓ Desecha la mascarilla cuando esté húmeda y no la reutilices
- ✓ Lávate las manos después

Haz un **uso responsable y adecuado** de las mascarillas para **no contribuir al desabastecimiento** y para que quienes sí las necesitan puedan utilizarlas

Normas generales



1
MANTENER DISTANCIA
PERSONAL EN TODO
MOMENTO



2
EVITAR TODO SALUDO
QUE IMPLIQUE
CONTACTO FÍSICO



3
LAVADO DE MANOS
FRECUENTE



4
EVITAR TOCARSE LA
CARA, ESPECIALMENTE
OJOS, NARIZ Y BOCA

Limpeza de manos



1
MÓJESE LAS MANOS



2
UTILICE JABÓN




3
FROTAR LAS MANOS
PALMA A PALMA



4
ENJABONE BIEN EL
DORSO DE SUS
MANOS




5
FROTE ENTRE SUS
DEDOS



6
ASEGÚRESE DE
LIMPIAR LAS
UÑAS FROTANDO
LAS MANOS



7
FROTE LOS
PULGARES CON
MOVIMIENTOS
ROTATORIOS



8
LÁVESE LAS YEMAS Y
UÑAS DE LOS DEDOS



9
ACLARAR LAS MANOS



10
SECAR CON UNA
TOALLA DESECHABLE



11
USE LA TOALLA PARA
CERRAR EL GRIFO




12
SECAR BIEN
SUS MANOS

Colocación y retirada de guantes



1
LÁVASE LAS MANOS ANTES DE COGER LOS GUANTES



2
DESINFECTARSE LAS MANOS ANTES DE COGER LOS GUANTES



3
TOCAR SOLO LA SUPERFICIE CORRESPONDIENTE A LA MUÑECA



4
ESTIRE HASTA COLOCAR EL PRIMER GUANTE




5
RETIRE EL SEGUNDO GUANTE PARA REPETIR EL PROCEDIMIENTO




6
ASEGÚRESE SIEMPRE DE TIRAR DESDE LA PARTE DE LA MUÑECA



7
YA TIENE COLOCADO AMBOS GUANTES



8
PARA RETIRAR LOS GUANTES, PELLIZQUE POR EL EXTERIOR DEL PRIMER GUANTE



9
PARA RETIRAR EL SEGUNDO GUANTE, DESLICE LOS DEDOS SIN TOCAR EL EXTERIOR




10
INMEDIATAMENTE DESECHE LOS GUANTES EN UN CUBO CERRADO SIN TOCAR EL EXTERIOR

Colocación y retirada de mascarillas



1
LÁVASE LAS MANOS ANTES DE USAR LA MASCARILLA



2
ASEGÚRESE QUE LA MASCARILLA NO ESTE DAÑADA



3
UBIQUE LA TIRA METÁLICA Y COLOCARLA EN EL PUENTE DE NARIZ




4
ASEGURE LAS CUERDAS DETRÁS DE SU CABEZA O SOBRE SUS OÍDOS



5
ASEGÚRESE DE NO TOCAR LA BOCA Y LA



6
PRESIONE LA TIRA METÁLICA PARA AJUSTAR LA FORMA DE LA NARIZ



7
REEMPLACE LA MASCARILLA SI SE HUMEDECE Y NO LA REUTILICE



8
NO TOQUE LA MASCARILLA MIENTRAS LA UTILICE. SI LO HACE, LÁVESE LAS MANOS



9
RETIRE LA MASCARILLA POR DETRÁS SOSTENIENDO LAS CUERDAS CON LAS MANOS LIMPIAS



10
INMEDIATAMENTE DESECHE LA MASCARILLA EN UN CUBO CERRADO SIN TOCAR EL EXTERIOR

